

**366/2024 EBAZPENA, otsailaren 22koa, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakaoko ESiko Pneumologiako Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den**

#### AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearen urtarrilaren 2ko 1/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Pneumologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko urtarrilaren 22ko EHAA 16. zk. eta 2024ko urtarrilaren 31eko BOE 27 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko otsailaren 21ean amaitu zen.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,


#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barrualde-Galdakaoko ESiko Pneumologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio xxx ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakao, 2024ko otsailaren 22a.



Barrualde-Galdakaoko zuzendari gerentea,  
JON GUAJARDO REMACHA

**I. ERANSKINA**

**BARRUALDE-GALDAKAKO ESI-KO PNEUMOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO  
BURUA IZENENKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Aitor Ballaz Quincoces jn.

Baztertuak:

- Inork ez